

txintxarri ³⁰urte!

1. Lur nintzen ta lurtuz noa zugar bat egin arte, zurekin behin betikoz ezkontzen naizen arte.

2. Hasieran bat ginen eta denborarikan ez zen lainoak gure gainetik bezala bizi ginen.

3. Maite ninduzulako hemen nago bakarrik, zerbait eman nahi zenidan ta utzi nauzu hutsik.

4. Zuhaitzik gabeko baso plai hondargabea, zuen antzekoa dut mundu hontan suertea.

5. Zervan ez dago izarririk aldegin du haizeak, negarrez erori dira basoko landareak.

6. Orain gaztea naiz eta lehen berriz mutiko, ihesi doan kea naiz ezkutatu betiko.

7. Debalde etorri nintzen eta debalde noa, dagoeneko prest daukat hilerriko zuloa.

8. Kirieleison luzea, kantu lehor zatarra, eguzkia badoa ta erin beza lanzarra.

Emandakoaren truke egindakoa

Hiru orduko omenaldi hunkigarria egin diote Imanol Lizardiri kultur etxean, Euskararen Egunean / 7

TXINTXARRI

'J'-dunen jaialdi jeniala egin dute

Jalgune elkarteak jaialdi koloretsu bat aurrera eraman du kultur etxean, zenbait lagunekin oholza partekatuta / 6

Herriko boluntarioak omendu ditu Parrokiarteko Misionen taldeak, Atsobakarren / 2

Gabonetako ekimenen berri eman dute udaleko Jaiak, Gazteria eta Kultura sailek / 3

Aterpea elkarteak Gabonetako otarren zozketak eta erakusleihu lehiaketa abian jarri ditu / 4

San Tomas azokarekin hasiko dira Ttakun KEren Eguberrietarako ekimenak / 5

Buruntzaldea IKTko igerilariek markak ondu dituzte Rotterdam eta Hernanin / 10

Intza pilota eskolako infantil eta alebinak banakako Ekialdeko txapelketa ari dira lehiatzen / 12

aldika

productos selectos



www.aldika.com

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
ondoak
marinatuak
olagarroa



ESKARIAK telefonoz: 943-37 70 89
whatsappez: 687 05 81 72
emailez: aldika@aldika.com

Ixabel Zuaznabar gogoan, boluntario guztiei aitortza

Parrokietako Misioen elkarteak herriko bolondresak aintzatzetsi ditu Boluntarioen Nazioarteko Egunaren harira. Ixabel Zuaznabar eta Juanjo Mendiluce senar-emazteak izan dituzte gogoan bereziki, urte askotan zehar egindako "lan eskerga" goretsita

Iñigo Gonzalez Sarobe

Parrokiarteko Misioen taldeak Lasarte-Oriako boluntario guztiak aintzatzetsi zituen hilaren 6an, Boluntarioen Nazioarteko Egunaren biharamunean, eta, bereziki, Ixabel Zuaznabar eta Juanjo Mendiluce senar-emazte izandakoen jarduna nabarmendu zuten. Horretarako, lore eskaintza bat egin zuten Atsobakar auzoko parkean dauden plaka oroigarriaren nahiz monolitoaren aurrean. Horren aurretik, aipatu bi herritar horien omenezko meza bat aurrera eraman zuten San Pedro parrokian.

Esan bezala, Boluntarioen Nazioarteko Eguna izan zen hilaren 5a, asteartea. Horren harira, lan eskerga hori gure herrian aurrera eramaten duten lasarteoriar guztiak omendu zituen hurrengo egunean Parrokiarteko Misioen taldeak, eta, bereziki, abuztuaren 9an hil zen Ixabel Zuaznabar, eragile horretako kide ohi eta afari solidarioen



Dozenaka herritar elkartu ziren Atsobakar parkeko aitortza ekitaldian. TXINTXARRI

"bultzatzaile sutsua hamazazpi urte baino gehiagoz", beste zeregin ugariaren artean. Horretarako, Atsobakar parkera joan ziren bi dozena pertsona, Gotzon Huegunek egindako eta 2017an inauguratutako monolitoaren

aurrean lore eskaintza bat egi-tera (eskultura horren aurretik beste bat jarri zuten 1997an, baina, bandalismo ekintza bat tarteko, apurte egin zuten eta berritu egin behar izan zuten). Metro batzuk aurrerago Juanjo

Mendiluceren omenezko plaka dago, Zuaznabarren senarra zena eta emazteak bezalatsu boluntario lan izugarria egin zuena. Horiek biak izan zituzten bereziki gogoan taldekideek, eta, batez ere, Zuaznabar. "Merezi duen oroitzapen berezia izan nahi dugu gure Ixabel maitearekin, bihotz-bihotzez, bere denbora eta baliabideak gehien behar zituztenei eman zizkielako. Uste dugu samariar ona izan zela bizi izan zen artean, eta, dagoen tokian dagoela ere, gu guztiok animatzen jarraituko duela". Herritarren "jardun eredugarriari" jarraituta, herritar guztiak horrelakoak izan behar dutela nabarmendu zuten.

"Bizimodua hobetzen du"

Zuaznabarrek, taldeko beste kide batzuekin batera, pertsona "eskuzabal" ugariaren arteko bilerak antolatatu zituen, misiolariak joaten ziren lurraldeetan proiektuak gauzatu ahal izateko finantzazioa lortzeko edota hondamendiren bat pairatu zutenei bizirauten laguntzeko. Horren adibide, Ixabel eta Juanjo senar-emazteek Venezuelako Valles del Tuy eskualdera egindako bidaia 1961ean, 22 urterekin. Itzuli zirenerako 29 zituzten, zazpi urte igaro baitzituztelako hango herritarrekin bizitzen; gehienak miseria gorrian bizi baziren ere, giza balio esanguratsak zituzten, hala nola, eskuzabaltasuna eta sentsibilitatea. Herrialde horretan bizi zire-

nean jaio ziren haien bi semeak, Ion eta Arantza.

Bidaia hori izan zen bi herritar horien lanaren adibide bat. Ildo horretatik, Parrokiarteko Misioen taldeko kideek adierazi dute boluntariotza "aukera etiko" bat dela, "doakoa, saririk edo etekin ekonomikorik" espe-ro ez duena bueltan. Beste era batera esanda, "bizimodu kolektibo hobetzen duen konpromiso solidarioa" da, "etengabe" bilakatzen dena, "bizirik dagoen indarra". Zeregin horretan parte hartzen dutenen helburua gizartearen, taldeen nahiz norbanakoen alde lan egitea da.

Lasarte-Orian lan hori "bizirik" badago ere, horretan dihardutenek antzematen dute "belaualdi aldaketa" bat. "Gizarteko kide gazteak boluntariotzatik urrutiago daudela dirudi; historikoki eskuzabala izan da zeregin hori, gaur egun garrantzitsua dena eta etorkizunean halakoa izaten segiko duena". Horren barruan, alor guztietako taldetan zein eragiletan diharduten boluntario guztiak omendu nahi izan dituzte, gure herriaren "elkarbizitza eta ongizatea" bultzatzen dituztelako.

"HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA ONGIZATEA" DITU HELBURU BOLUNTARIOTZAK

Maria Dolores Alirik, 100 urte

Zubietan jaioa da Maria Dolores Aliri Añorga, eta, kontatu duenez, denbora asko eman zuen bidaiatzen; Kanariar Uharteetan, Bilbon, Gijonen, Salamancan, eta beste hainbat lekutan bizitu zen, eta duela 40 bat urte itzuli eta Lasarte-Orian, bertan finkatu zen arte. Martxoaz geroztik Villabonako Santiago egoitzan bizi da, baina "herrira itzultzeko gogoan" duela aitortu du.



LASARTE-ORIAKO UDALA



TXINTXARRI

Errumaniaren Eguna ospatu dute

Decebal elkarteak antolatuta, hilaren lehenean izan zen Errumaniaren Eguna ospatu zuten bi egun geroago Gizarte Etxean. Gipuzkoan barrena bizi diren 80 bat lagun elkartu ziren jaioterriko plater ohikoekin osatutako menua bazkaltzeko, eta ondoren, Bagey Stoika eta Millenium taldeen musikarekin nahi beste dantza egin zuten. Txikienek jolasteko txoko bat izan zuten baita Aita Noelen bisita ere.

Haur eta nagusiek Gabonez gozatzeko jarduera sorta

Udaleko Jaiak departamentuak, Gazteria sailak eta Kultura arloak askotariko jarduerak antolatu ditu Eguiberrietarako. Haurrentzako Gabonetako Parkea, San Tomas azoka, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera izango dira horietako batzuk. Horiekin batera, Gaztelekuko egitasmoak eta musika emanaldiak ere izango dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ate joka ditugun Eguberrietarako antolatu dituen jardueren berri eman du. Hiru sailek aurrera eramango dituzte aipatu egitasmoak: Jaiak departamentuak (granate kolorekoak), Kultura arloak (hori kolorekoak), eta Gazteria sailak (berde kolorekoak). Azken horrek proposatutakoak Gaztelekuan izango dira, 16:30etik 20:30era.

AB. 21-URT.4

Gabonetako Haur Parkea. Ohartarazi dute 14 urtera arteko gazteei zuzendutako jarduerak dela, eta horientzat sarrera doakoa izango den arren, bertaraten diren helduek euro bat ordaindu beharko dutela sarrera. Gogorarazi dute, gainera, Eventos globales enpresa dela ekimen hori aurrera eramatearen arduraduna, 43.300 euroren truke.

ABENDUAK 21

San Tomas azoka. Ohi bezala Ttakun Kultur Elkarteak antolatuko du, 17:00etatik aurrera Okendo plazan. Askotariko jarduerak eramango ditu aurrera.

ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Pertsona maitagarriak etorriko dira herritarren artean opariak eta zoriontasuna banatzera. Eurekin batera izango dira, baita ere, Xixuko ahatea, Porrotx pailazoa eta Mari Teilatuko. Okendo plazan elkartuko dira herriko gaztetxoekin, goizez.

ABENDUAK 31

DJ gaua. Andatza plazan izango da eta bi txanda iragarri dituzte. Lehenengo familiei zuzenduta egongo da (19:00etatik 20:30era) eta, bigarrena, berriz, gazteei (01:00etatik 04:00etara). Oihan Vega arduratuko da musika jartzeaz.

URTARRILAK 5

Errege Magoen etorrera. Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Orian izango dira. Goizean Atsotak egoitzako egoiliarak bisitatuko dituzte, eta, bitartean, herriko haurren eskutitzak jasoko dituzte euren postariak, Okendo plazan. Arratsaldean, aldiz, desfilea egingo dute herriko kaleetan barrena.

ABENDUAK 22

Gabonetako apaingarriekin atonduko dute Gaztelekua.

AB. 26-30

Futbolin txapelketa. Bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute. Hilaren 22tik aurrera egin dezakete hori, Gaztelekuan bertan (16:30etik, 20:30era).

ABENDUAK 26

Tik Tok aplikaziorako ikus-entzunezkoak grabatuko dituzte Gaztelekuan.

ABENDUAK 28

Inozente Eguna denez, inozentadak eta txantxak egingo dituzte Gaztelekuan.

ABENDUAK 29

Ikoholik gabeko koktelak prestatzen ikasteko tailerra, Gaztelekuan.

ABENDUAK 30

rte Zahar Eguneko kanpaikadak Gaztelekuan.

URT. 2-5

Ping-pong txapelketa. Bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute. Hilaren 22tik aurrera egin dezakete hori, Gaztelekuan bertan (16:30etik, 20:30era).

URT. 3-4

Mahai jolas dibertigarriak, Gaztelekuan.

ABENDUAK 16

Zero Sette Akordeoi Orkestraren kontzertua, San Pedro elizan, 20:00etan.

ABENDUAK 18

Udal Musika Eskolaren emanaldia, auditorioan, 19:00etan.

ABENDUAK 22

Alboka abesbatza eta Emotio taldearen kontzertua, Brigitarren komentuan, 19:30ean.

ABENDUAK 28

New Orleans taldearen gospel kontzertua, 20:00etan. Sarrera, 14 euro.



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Gabonetako izpiritua

Gabonetako denboraldia hasi dugu gurean. Supermerkatuetan, irailan; etxe batzuetan, Gau Beltza eta gero... guk abenduko zubian jartzen dugu pinua, betiko erritualarekin: Gabi De la Mazaren Gabonetako playlista jarri Youtuben eta gabon kantak abestuz... *voilà* zuhaitza jarrita.

Eguberriak bai edo ez eztabaidan gehiegi sartu gabe, badaude jai hauek benetan maite dituztenak, edo alderantziz, batere gustatzen ez zaizkienak. Ni gabonen zalea naizela aitortu behar dut, nahiz eta behin Urte Zahar Gaua pasata, *punch*-a galtzen duten.

Urteak aurrera joan diren heinean, ordea, gabonak pribilegiatu bat naizelako gustatzen zaizkidala konturatu naiz. Pribilegiatu bat, hasteko, norekin, non, nola eta zer ospatu izan dudalako. Eta, bestetik, ez didatelako orain arte buruhauste gehiegi eragin. Orain arte beti gonbidatu gisa joan naiz besteen etxera; beraz, kezka handirik gabe ibili naiz, zentzu horretan.

Baina gabonen prestaketa aste askotara luzatzen da zenbait etxetan. Uda amaitzearekin batera, *izpiritua* ate joka hasten da zenbait burutan, eta otarrainxkak prezio onean ikusiz gero, izozkailura. Menua ere pentsatu beharko, guztien gustuak errespetatuz... Etxea txukundu, baxera polita aterra, mahai-zapiak nahiz mantelak garbitu eta lisatu, kopak distiratu utzi, bezperan janarien lehenengo fasea martxan jarri... Dena pare bat ordutan garbi uzteko. Beno, garbi... norbaitek utzi arte.

Lan hori guztia norbaitek egin du, eta norbait horrek emakume aurpegia du: gure amak, amonak, izebak, ahizpak edo arrebak. Hona hemen nire eskerrik beroena egin duzuen lan guztiarengatik. Ez zaizue iruditzen, ordea, hitzak alde batera utzi, eta, behingoz, buruhausteen lekukoa pribilegiadun horiei pasatzeko garaia badela, gabonez denek gozatu ahal izateko?

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

943 903 450
bertako.eus



Eguberriak girotzen lagunduko dute

Aterpea elkarteko kideek nahi dute herritarrek festa "politak" igarotzea, eta, horregatik, erakusleihen lehiaketa nahiz 'Erosi Lasarte-Orian eta lortu Eguberrietako sorta bat' ekimenak martxan jarri dituzte. Eskaparate onena hilaren 17ra arte aukera dezakete lasarteoriarrek

Txintxarri

Aterpeako kideek elkarteko bazkide den komertzio bat aukeratzen dute prentsaurreko bat egin behar duten aldiro. Uistin kaleko 4. zenbakira deitu dituzte kazetariak gaur, Maiane lurrin denda atarira. Ez dute kasualitatez aukeratu establezimendu hori, izan ere, 40 urte bete ditu aurten. Berriki aurkeztu dituzten egitasmoen berri eman aurretik, denda horren jabeak zoriondu dituzte eta bide beretik segitzea opa egin. Dendariak ez ezik, Agustin Valdivia alkatea ere bertaratu da, jarduerak udalarekin elkarlanean antolatu baitituzte eta baita Eusko Jaurilaritzako Komertzio, Turismo eta Kontsumo sailarekin.

Hilaren 1etik 22ra aurrera eramanen ari dira *Erosi Lasarte-Orian eta lortu Eguberrietako sorta bat* izeneko kanpaina; 37 establezimendu animatu dira parte hartzera. Simplea da dinamika: denda horietako bakoitzean erosten duten bezeroek zozketa batean



Maiane lurrin dendan aurkeztu dituzte Eguberrietako ekimenak. TXINTXARRI

parte hartuko dute, jabe bakoitzak 22an bertan egingo duena. Orduan jakinaraziko dute irabazleak norzuk izan diren.

Bestalde, jakinarazi dute martxan dagoela erakusleihen lehiaketa eta parte hartzeko azken

eguna hilaren 17a dela. Hamalau denda animatu dira: Aritzta mertzeria, Ormazabal loradenda, Ventanas Alcar, Naturhouse, Dulce Tentacion, Oihana Estetika, Haune Interiorismo, Lilura liburu denda, Mabel Moda, Ima-



Pintxo bidearen antolatzaile, partaide eta saridunak. TXINTXARRI

Araeta sagardotegia, garaile

Cantala izeneko pintxo, itsasoa eta lurra fusionatzen dituen biera gratinatua alegia, izan da Roberto Garcia sukaldariari (sari profesionala nori eman berak erabaki du) eta herri epaimahaia osatu dutenei (Arrieskalleta, Semblante Andaluz, Palomo Linares, Lasartearra eta Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea elkarteko kide bana) gehien gustatu zaien jakia. Araeta sagardotegiko txef Carlos Huapayak prestatu du eta baita bi garaikurrak jaso ere. Hunkituta, horrelako egitasmoak eta "sukaldaritzaren artea" bultzatzen jarraitzeko eskatu die antolatzaileei. Aurten parte hartu duten bost establezimenduen artean 700 bat pintxo saldu zituzten azaroko azken asteburuan. Aurtengo pintxo bidean parte hartu duten gainerako establezimenduak Arima, Buenetxea, Plan B eta Herriko Etxea izan dira.

gine jantzi denda, Alba Moda, Loteria Izaguerri, Maiane lurrin denda eta Noaoa Bidaiak.

Sarietako bat herritarrek erabakiko dute, partaide bakoitzaren dendan aurkituko duten eskuorria beteta. Antolatzaileek garbi utzi

dute honakoa: bezero bat, boto bat. Beste saria epaimahai profesional batek emango du. Kideak hauek dira: Biyak Bat egoitza, Erketz dantza taldea, Amaia Gonzalez Caballero akademia eta Rural Kutxa bankua.

Herritarrek, Durangon

58. Durangoko Azokak hartu du, hilaren 6tik 10era, Landako Gunea. Euskal liburu eta disko ugariaren erakusleihoak bost egunez izan ditu ateak zabalik, eta milaka bisitari jaso ditu aurten ere. Oraingoan ere izan da, noski, sortzaile lasarteoriarrik; horien guztien artean topatu ditu TXINTXARRI-k Martin Anso Txertoa argitaletxeko editorea, Aintzane Usandizaga eta Pablo Barrio idazleak, Katxiporretako kideak, eta Rukula musika taldea. Herriko sortzaile gehiagorekin topo egin ez arren, beste lanik ere ikusi ahal izan du aldizkariak azokan, hala nola, Ane Labakaren 'Barraskiloek baino bat gehiago', edota Formol laborategiaren 'Album'.





Besteak beste, talo goxoak prestatuko dituzte San Tomas eguneko azokan, Okendo plazan. TXINTXARRI

Eguberrietan ere, euskaratik eta euskaraz

San Tomas azoka antolatuta ekingo die Gabonetako ospakizunei Ttakun Kultur Elkarteak, hilaren 21ean, 17:00etan, Okendo plazan. Hiru egun geroago, goizez lan egin beharko dute, 13:00etatik 15:00etara haurren gutunak jasota. Desfilea 12:00etan hasiko da

Txintxarri

Ate joka ditugun Gabonetara begira makina bat jarduera antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak, euskaratik eta euskaraz, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. San Tomas azokarekin hasiko dituzte ospakizunak hilaren 21ean, ostegunarekin, 17:00etatik 20:00etara azoka jarrita Okendo plazan. Bertaratzen

direnek aukera izango dute talo, txistorra eta gaztainak dastatzeko, txerria ikustekoa eta zenbait emanaldiz gozatzekoa: Xumela korukoek euskal kantak abestuko dituzte eta Oaintxe in deu! txarangakoeak, berriz, kaleak girotu. Antolatzaileek feriaz gozatzera eta baserritar jantzita joatera gonbidatu dituzte lasarte-oriarrak.

Ekimen horretarako motorrak berotze aldera, taloak egiten ikasteko bi saio antolatu ditu euskara elkarteak, hilaren 19an. Lehenengoa 17:00etatik 18:30era izango da (honezkeru toki guztiak hartuta daude) eta bigarrena 18:30etik 20:00etara. Izena eman nahi dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefono zenba-

kira deitu behar dute ahal bezain lasterren.

Olentzero eta Mari Domingi

San Tomasetik hiru egunetara etorriko dira herrira Olentzero, Mari Domingi eta lagunak. 12:00etan desfilatuko dute herriko kaleetan barrena eta 12:30ean ikuskizun koloretsu bat emango dute Porrotx pailazoarekin batera, Okendo plazan. Horren aurretik, herriko ikastetxeetako haurrak kantu eskean ibiliko dira erdigunean barrena, 11:00etan hasita. Desfilearen eta emanaldiaren ostean,

haurren eskutitzak jasoko dituzte Okendon bertan eta Antonio Mercero gunean, 13:00etatik 15:00etara.

Ekitaldi horretara joan nahi dutenek txartelak eskuratu behar dituzte Ttakun KEren bulegoan (Geltoki kalea 4, behea), hilaren 19an eta 20an, 09:00etatik 13:00etara edota 16:00etatik 18:00etara.

Bestalde, Xixuko ahatea ariko da lanean Olentzero eta Mari Domingi etorri aurreko egunetan, izan ere, Garaikoetxea-Landaberriko haurren marrazkiak jasoko ditu 18an eta Sasoetakoenak 20an.

Titareko izen ematea, zabalik

Eguberrietako programazioaren berri emateaz gain, Ttakun Kultur Elkarteak jakinarazi du datorren astelehenean zabalduko duela Titare jostungintza ikastaroan izena emateko epea, hilak 18, tokiak agortu arte. Saioak urtarilaren 11n hasiko dira eta ostegunero izango dira, 15:30etik 17:30era, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan. Jarduera horretan parte hartu nahi dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefonora deitu beharko dute.



Josten ikasiko dute. TXINTXARRI

Tailerrak eta irteera berezi bat

Helduentzat ez ezik, gaztetxoentzako ekimenak ere badira. Esate baterako, HH5 eta LH2 maila arteko haurrek Eguberrietako tailerrak egingo dituzte Ttakunenean, hilaren 18an eta 20an. Errezetei eta eskulanei buruzkoak izango dira, hurrenez hurren.

Bestalde, Gazte Klubeko kideek sukaldaritzatailer bat izango dute, baserriko produktuak erabilia. Hilaren 26an eta 27an izango dira saioak, Ttakunenean. Izen emateak aisia@ttakun.eus helbide elektronikora edota 943-37 14 48 nahiz 695 78 53 92 telefono zenbakietan egin beharko dituzte herritarrek. Azkenik, Eguberrietako irteera berezia izango dute 28an LH3 eta 6 arteko mailakoek, 09:30etik 18:30era. Bazkaria eta merienda eraman beharko dituzte. Ttakun KEko bazkide direnek 22 euro ordaindu behar dituzte eta ez direnek, 25.



Erabili meloia Gorde erosketa-tiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin

Euskadi, auzolana, bien común

f t i www.kontsumobide.eus

kontsumOBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Jalguneren jaialdi jeniala

'J'-dunen festa koloretsua



Semblante Andaluzeko lagunekin gogotik dantzatu zuten. TXINTXARRI

Jostariak, jakintsuak, jatunak, jatorrak, jeniodunak... *J* hizkidun pertsonen eguna ospatzera deitu zituen herritarrak Jalgune elkarteak emanaldia aurkeztu zuenean. Eta horietako askok bat egin zuten hilaren 2an, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Jaizaleak badira, bat bera ere ez zuten gogaitu. Euskararen Eguna izateaz gain, abenduaren 3a, Aniztasun Funtzionalaren Eguna ere bada; eta haren bezperan ospatu zuen Jalgunek bere urteroko jaialdia. Jotaz beterikoa izan zen, nahiz eta justu estilo horretara ez diren animatu dantza gogotik egin zuten kideek. Hizki horren itxura zuten puxikek apaindu zuten eszenarioa eta harekin hasten diren adjektiboek leku berezia izan zuten saioan. Aurkezpena egin zuten Anek eta Edortak maisuki laburbildu zuten: "Jotadun herria gara, herri jatorra", edo aurretik kideak gaztelerez zehatzago esandakoa ere: Zalaparta eta parranda zalea —"jaleo" eta "jarana", jatorrizkoan—. Ohi bezala, emanaldi koloretsua eskaini zuten Jalgunekoen zenbait lagunekin batera: Semblante Andaluz edota LOKeren gimnastika taldea, esaterako. Zuzeneko emanaldiak Jota Telebistako bideo barregarri batzuekin uztartu zituzten.



Tim Burton zinemagilearen unibertso pertsonaiak taularatu zituzten. TXINTXARRI



Emanumeen aldeko aldarriak ez ziren falta izan. TXINTXARRI



LOKEko gimnastek ere parte hartu zuten jaialdian. TXINTXARRI



Oholtzaratze eder honekin amaitu zuten ikuskizuna Jalguneko lagunek. TXINTXARRI

Emanaldia, TXINTXARRI-ren webgunean ikusgai

Jalgune elkarteak eta TXINTXARRI aldizkariak urteak daramatzate elkarlanean jarduten eta hala izan da aurtien ere. *J*-dun pertsonen jaialdia iragartzeko kartelerako argazkiak eta diseinua lantaldeko kideek prestatu dituzte, esate baterako.

Horrez gain, hilaren 2an aurrera eramandako jaialdia bideoz grabatu zuen aldizkariak, oso-osorik. Edizio lanak egin eta gero, ordu bete eta hamar minutu irauten duen ikus-entzunezko bat prestatu du, Jalguneko lagunek kultur etxeko

oholtza gainean egindako zuzeneko emanaldiak eta ikuskizun horretarako prestatutako Jota Telebistako bideoak uztartuta.

Datozen egunetan igoko du TXINTXARRI-k bideo hori bere webgunera, hala nahi duten irakusleek osorik ikusi eta entzuteko aukera izan dezaten. Besterik gabe, eskerrik asko Jalgune gudan duzun konfiantzagatik eta segi dezagun bide hau elkarrekin egiten, pausoka-pausoka! Aupa *J*-dun jendea!



Eskerrak eta bizipenak, hitz neurtuetan

Eman zienaren truke ia hiru orduko omenaldia egin zioten Imanol Lizardiri Euskararen Egunean. Kultur etxea bete egin zuten makina bat lagunek, eta bere bizitza eta ibilbidea gogoratu zuten bertso, kanta eta pasadizo bidez

Maitane Aldanondo

Olentzero, euskara irakasle, bertso eskolako sortzaile, Ttakun Kultur Elkartearen sustatzaile, hamaika kontutan ibili zen maiztzean hildako Imanol Lizardi eta horren berri eman zuten gertutik ezagutu zutenek. Bere eskuzabaltasuna eta euskarari lotutako edozeri baietza nabarmendu zituzten, egindako lanaren gainetik, pertsona bera gogoratuta.

Bertso saioa zen ekitaldiaren bizkarrezurra, baina hori baino askoz gehiago izan zen: umorea, bizipenak, abestiak, bitxikeriak, bertsoak, noski, bertso saiakerak... Eta guztia biltzen, eskertza eta zirrara. Mailu Arruti izan zen aurkezlea, eta etxean sentiarazteko, zapatilak eman zizkien Ane Labaka eta Andoni Egaña bertsolarietara. Horiek gabe ere, goxo hartu zituzten auditorioa bete zuten herritarrek, baita eszenariora irten ziren gainerakoak ere. Saioa, giroa bera moduan, berezia izan zen. Agurrik gogoratu zuten biek lagun eta bertso saioen kronista izandakoa; eta haien ondotik, beste bi dozena bat lagunek gauza

bera egin zuten. Arrutik abestu moduan "Imanolen bizitza" kontatu zuten.

Haurtzaroko Lasarte-Oria euskalduna izan zuten abiapuntua, Mikel Zinkunegi lagunak audioari esker. 1960ko hamarkadan euskaltzaletasuna nola bizi zuten azaldu zuen, datu gisa, Santa Ana parodian bi esaldi besterik ez ziren euskaraz, Basajaunenak, hau da, Lizardirenak. Iñaki Arrutik aldizkari honetan argitaratutako gutuna izan zen hurrengo bertso-gaia, bertan omenduaren ama Itziarri eskerrak eman baitzizkion seme-alabei etxean euskara hutsean hitz eginarazi zielako. Eta handik, euskara irakasle garaietara heldu ziren. Rosa Ormazabalek, hunkituta, sarjentuaren aulkian gogoratu zuen Lizardi, EGA azterketa prestatzeko eskolak ematen. Agus Mujika ere hezkuntza arloaz jardun zen, umoretik, giroa pixka bat arinduz.

Bizipenak eta bertsoak

Bueltatzeko asmoz joan baziren ere, Alkizan egin zituen azken bi hamarkadak Lizardik. Barnegegiko irakasle, herrikide eta lankide izandako batzuek ere

parte hartu zuten ekitaldian. Han ere "saltsa guztien perrexila" izan zen "ameslari-errealista", "gizon on bat, bihotz handi batekin". Eta lagunari zenbait abesti eskaini zizkioten. Etxean euskararen alde egindakoaz mintzatu ziren Peio Sasiain eta Mari Karmen Ormazabal; lasarteoriatar gazteenek, ordea, Olentzero gisa ezagutu zuten. Horietako bat, Lierni Rekondo. Gero bertso eskolan harremana izan bazuten ere, ikazkinari jarri zizkion bertsoak; eta menditik jaistean harekin egoten diren pailazoek ere hitz batzuk eskaini zizkioten bideo batean.

Earra! bertso eskolak izan zuen protagonismoa azken txanpan. Mikro aurrean jarri ziren bertatik pasatako bertsolari batzuk eta egun bertan dabilen gaztetxo talde bat. Azken horiek Udalak abiarazi asmo duen Imanol Lizardi bertsolari gazteen sariketaren ere parte hartu ahalko dute datorren urtetik aurrera.

Jasotakoa eskertzeko, Ana Eizmendi alargunak hitz batzuk esan zizkien bertaratutakoei eta denek elkarrekin abestu zuten Imanol Larzabalen *Koplak*.



Alkizatik etorri zen lagun eta lankide taldeak kanta pare bat abestu zituen. TXINTXARRI



Etxeko zapatilak jantzita bertsoan egin zuten Egaña eta Labakak. TXINTXARRI



Eszenariora irten zen lehen aldia Olentzerori abestu zion Lierni Rekondok. TXINTXARRI



Ana Eizmendik hunkituta eskertu zien saioa partaideei eta bertaratutakoei. TXINTXARRI



Earra! bertso eskolako gaztetxoek, besteak beste, bertsoak eskaini zizkioten Lizardiri. TXINTXARRI

Ohi bezala 0-16 urte artekoentzako jostailuak eta jokoak, musika, DVD filmak, APP-ak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak, denetarik aurkituko duzue, Hego Euskal Herriko ehunik gora udal eta mankomunitateak, tartean Buntzaldeako udaletako euskara zerbitzuak lankidetzan jartzen dituen egitasmo honen paperezko edizioan. 64.000 ale banatuko dira aurtengoa Hego Euskal Herri osoan; besteak beste eskualde honetan, Andoainen, Astigarra, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen.

Urtean behin kaleratzen duten paperezko euskarri honez gain, gogoan izan, noiznahi kontsulta dezakezue eskaintza osoa *katalogoa.eus* atarian eta berrikuntza hauen jarraipena ere egin dezakezue, aipatu webgunean buletin elektronikora doan harpidetzea erabakitzen baduzue. Ikusi soilik ez, produktuok erosteko zubilana egiten dute webgune horren eta argitaletxeen artean. Paperezko euskarri bezala, edizio elektronikoan ere 0-12 eta 12-16 urte arteko erabiltzaileentzako eskaintza berezituak dute. Aurtengoa, “biek ere itxura berriak estreinatu dituzte”, azaldu dute sustatzaileek.

Atal bakoitzaren direktorioa

Batean zein bestean, “atal bakoitzak bere direktorioa du eta, hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da produktuak tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Azkenean, erabiltzaileak produkturen bat begiz joz gero, argitaletxearen denda birtualera sartzeko manera izango du ‘non eskuratu’ botoian klikatuta”.

Bisita kopurua hazi da

Maiz eguneratzen dute euskarzako produktuon ataria, “argitara-



Euskarazko Produktuen Katalogo berriaren 64.000 ale banatuko dira aurtengoa Hego Euskal Herri osoan.

25 urte, euskarazko aisialdian eragiten

Mende laurdena euskarazko sorkuntzaren erakusleho lana egiten, aisialdi tartea euskalduntzen. Konturatzeko, hogeitabosgarrena labetik atera berri dute, “zizt eta zazit!” aldarripean. Klean da jada Euskarazko Produktuen Katalogo berria, 2023-24 ikasturteari dagokiona, 8.000 sorkuntza lanen erreferentzien bildumaren aukeraketa batekin

tzen diren produktu berriak sartuz, deskatalogatu direnak kenduz eta, finean, *katalogoa.eus* bizi-bizirik dago”.

Nabarmenezkoa da, iaiztik hona webguneak izan duen bisita kopuruaren hazkuntza. Iaz

334 erabiltzaile sartu ziren bertan, 5.372 ikustaldi zenbatu zituzten, gehienak, ia mila, liburuaren atalean. Aurtengoa, izugarri hazi da bisitaldi kopurua. Sustatzaileek helarazitako datuen arabera, 3.146 erabiltzaile eta

40.793 ikustaldi izan ditu *katalogoa.eus* atariak. Kasu honetan, berdinketa eman da bisitatuenak diren bi atalen artean; liburuenean, 6.801 bisita zenbatu dituzte, 6.665 jostailu eta jokoen atalean.

Kalitatea lehentasun

Liburuaren atalean, bestalde, hautaketa lanetan dihardu Migelanjel Asiain “Osio”-k. Lehen urteetan argitaratzen zen edukian “bazen nolabaiteko desoreka” eta zeregin hau “pertsona neu-

Aipatzekoa baita, haur eta gazteei zuzenduriko eskaintzetan orohar izan den ikustaldi eta erabiltzaile kopuruaren hazkuntza. Gaztetxoeren artean, iaiz 203 erabiltzaile eta 395 ikustaldi erregistratu zituzten. Amaitzeko dagoen urte honetan, 2.275 erabiltzaile eta 4.209 ikustaldi. Gazteen kasuan, 918 erabiltzaile eta 1.842 ikustaldi zenbatu dituzte.

Lerrootan adierazi bezala, sarean eskaintza osoa kontsultatu ahalko duzue, haren lagin bat 25 urte bete dituen paperezko edizioan. Horretarako, noski, ezinbestekoa da alde aurretik aukeraketa lan bat egitea, nahi bai baina ezin bilduma osoan eskuorrian sartu. Zereginotan aritzen dihardu Andoni Imazek. “*Badok* atarian argitaratzen diren diskoak sartzen saiatzen naiz, mota askotakoak”, adierazi digu. Ez da zeregin erraza izaten. “Zailagoa izaten da niretzat haurrentzako musikara iristea zuzenean, horiek gertuen ditudan zirkuitetatik kanpo egoten direlako, nolabait esateko. Orain lana pilatzen da arlo guztietan, argitalpen kopurua asko hazten delako Durangoko Azokarako”, gaineratu du Imazek. Halere, azoka, informazio iturri ezin emankorrak dela dio. “Edozein datu biltzeko, azoka bera ere oso toki aproposa izaten da, urteko berrietasunak modu antolatua eta sistematizatu batean lortzeko aukera apurretako bat, argitaletxeen jardunetik kanpo ere iristen den argazki osatu antzeko bat”, azaldu digu. Horrekin batera, euskal musikaren atari den *badok.eus* webguneak ere “baditu argazkia etengabe osatzen aritzeko sareak”.

Auzolanari segida emateko deia

Halere, mende laurdena igarota, beste hainbeste urteko ibilbidea izateko motibazioz ez dela falta dio Osiok. Katalogoa, bere esanetan, “osasuntsu dago eta oraindik ere beharrezkoa izaten segitzen du. Presentzia fisikoa garrantzitsua da ikusi eta baita erreferentzia bat izateko ere”. Horren garrantzia are

gehiago nabarmenduko lukeen proposamen bat ere egin digu. “Ongi legoke norbaitek orain arte kaleraturiko katalogo guztiak hartu eta horien jarraipena egitea. Hor ikusiko genuke urte hauetan zer nolako garapena izan duen” bai paperezko euskarriak berak baita argitalpen honetan agertu diren

sorkuntza lanek, haien egileek edota argitaletxeek ere.

Zer nolako lankidetzak izan den ere agerian utziko luke behaketa lan honek Asiainen esanetan. “Hasieran askoz gehiago kostatzen zen, baina poliki-poliki garatu izan da eta eskertzekoa eta ezinbestekoa izan da, behar bezalako lana egiteko”. Berarentzat urteotako esperientzia opari gisa

definitzen du. “Haur eta gazteen literatura mundu ikaragarria da. Gela batean sartu, bertan hamaika ate daudela ikusi eta ate bakoitzak beste toki batera eramaten zaitu, oso aberatsa da”, eta aberasgarritzat jo du baita ere alor honetan dihardutenekin harreman ahal izatea.

Ildo horretan, mende laurden honen zutabe nagusietako bat izan

den auzolanari segida emateko deia egin du lerroon bidez. “Euskal Herriaren eta haur eta gazte literaturaren indargune handienetako bat da elkarlana. Segi dezagun lan hori zaintzen eta zuzentzen”. Katalogoak ere orain arteko nortasunari eustea nahiko luke. “Erreferentziak erakuslehoia izan eta eskuragarri izatea” nahi luke beste 25 urtez.

DISKOEI DAGOKIONEZ, "BADOK ATARIAN ARGITARATZEN DIRENAK SARTZEN SAIATZEN GARA"

LITERATURA LANEN AUKERAKETAN, "KALITATEA DA LEHENESTEN DEN IRIZPIDEA"

EDIZIO ELEKTRONIKOAK AUKERA ANITZ EMATEN DITU BILAKETAK EGITEKO"

troago" batek egitea egokiagotzat jo zutela azaldu digu. Zeregin honetan dabilenetik, urtean zehar plazaratzen diren sorkuntza lanen jarraipena egiten du, gero hautaketa bideratu ahal izateko. Ardura hau egoki betetzeko, irakurle amorratua izatea ezinbestekoa ote den galdetuta, ezetz esan digu; derrigorrezkoa ez, baina "lagungarria bai" izan badela.

Argi dio, plazaraturiko literatura lanen "kalitatea" da zeregin

horretan lehenesten duen irizpidea. Horren ostean, sorkuntza egitasmo hauek "Euskal Herrian argitaratuak izatea. Gero, argitaletxeen arteko oreka bermatzen saiatzen naiz". Horrez gain, kontuan izan; 0-12 eta 12-16 urte artekoentzako eskaintza bereizten du Katalogoak. Horregatik ere, "ikus behar da urte bakoitzeko ekoizpen hori nola banatu den adin tarte ezberdinen arabera".

Erabaki beharra

Hautaketa lan batek ezinbestean dakar, noski, nahi bai baina paperezko euskarrian dena sartu ezina. "Kasu gutxitan gertatu zait liburu bat edo beste kanpoan utzi beharra. Esaterako, hogeit argitalpen izan eta hamabi hautatu beharra derrigorrez. Amorruta ematen du zortzi lan alboratu beharra liburu onak direla eta Katalogoan egotea merezia dutela uste izan arren. Baina lan honek bere baitan darama hori", azaldu digu Osiok.

Gazteei zuzenduriko eskaintza

25 urte bete ditu asteotan esku-ratzeko aukera izango duzuen Katalogoak. Mende laurdena igarota, "bere funtzioa oso ongi betetzen du, zabalpen handia du" nabarmendu du Osiok eta *katalogoa.eus* atarian eskaintza osoa aurkitu ahalko dugun arren, gaineratu digunez, "agian momentuz online bidez ailegatzen ez den tokietara iristen da pape-

"Paperezko euskarrian bezala, edizio elektronikoan ere 0-12 eta 12-16 urte arteko ekoizpen zuzenduriko eskaintza bereizita dute".

rezko edizioa". Horregatik dio, bata zein bestea "elkarren osagarriak dira". Edizio elektronikoa hain zuzen, "oso baliagarria dela" dio. "Aukera aunitz ematen ditu; adinarene edo egilearen arabera bilaketak egiteko esaterako. Paperekoak bete ezin duen hutsunea osatzen du".

Bi hamarkada pasatxoko hautaketa lanak ahalbidetu dio Osiok "ikuspegi orokor bat izateko". Zer nolako bilakaera izan duen galdetuta, "Euskal Herriko sorkuntza bat azaldu besterik ez dago, baina ez gaude dena ongi dagoe la esateko moduan", aipatu digunez. Ibilbide luzeko egileak

nabarmendu ditu, haiek sortutako kalitatezko lanak, haienarekin batera belaunaldi berrien sortze lanen balioa, bai idazle zein ilustratzaileena. Baina kezka bat ere partekatu nahi izan du lerroon bidez. "Gazteen sailean, hurrenean baino sorkuntza lan gutxiago dago".



Europako errekorra eta gutxienekoak eskuan

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Rotterdam-en, Herbehereetan lehiatu da eta SB7 mailako Europako errekor berria egin du, 50 m. bular proban. Igeriketa taldeko infantilak, aldiz, Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko marka gutxienekoak metatzen doaz

Txintxarri

Hilabete hasieran Buruntzaldea IKTko igerilariak Neguko Liga-ko hirugarren jardunaldia zein Parisko Joko Paraolimpiarretako baliagarria zen Rotterdameko (Herbehereak) sailkapen txapelketan jokatu zituzten.

Nahia Zudaire taldekidea Espainiako selekzioarekin izan zen Herbehereetan jokatu zen nazioarteko lehiaketan. Zubietako igerilariak Espainiako zein Europako hainbat errekor berri finkatu zituen.

Lehiaketako lehen egunean, bi probatan egin zuen igeri Buruntzaldea IKTko igerilariak, 200 m. libre eta 50 m. bular pro-

bak, eta bietan lehen postuetan egon zen. Bular proban, bigarren amaitu zuen saioa eta gainera, 44,07ko marka eginez, SB7 klaseko Europako errekorra hautsi zuen Zudairek. Sailkapenean dagoeneko erakutsi zuen igerilari gazteak indartsu zegoela eta 45,43 marka eginez, Espainiako errekor berria ezarri zuen.

Estilo libreko lehiak, aldiz, bosgarren izan zen bai kanporaketan baita finalean ere. Azken horretan 02.27,40 marka egin zuen.

Hilaren 2an, 200 m. lau estilo probari egin zion aurre eta ezin izan zen finalean egon; bederatzigarren izan zen. Hala ere,



Nahia Zudaire, Europako marka hautsi izanaren kartelarekin. BAT BASQUE TEAM

sailkapen proban 02.57,20 egin eta Espainiako errekor berria ezarri zuen.

Txapelketako azken egunean, 400 m. libreetako finalerako sailkatu eta bosgarren markarik onena egin zuen, 05.06,18.

Gutxienekoak egiten

Igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutu mailako kirolariak Neguko Ligako saioa lehiatu zuten hilaren 2an, Hernanin.

Buruntzaldea IKTko hamabost partaidek parte hartu zuten jardunaldian eta besteak beste, gehienek 400 m. libre probari aurre egin zioten; infantil mailako igerilariarentzat erronka garrantzitsua zen Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketako gutxienekoa lortzeko balio zuelako. Kirolari guztiak lehiaketei martxa hartzen ari direla erakutsi eta hemezortzi marka pertsonal ondu zituzten.

Horien artean, Iñaki Garcia eta Ibon Elolak Euskal Herriko txapelketarako sailkapena eskuratu zuten. Nahiz eta bere marka ez hobetu, Amaiur Iparagirrek ere txartela eskuratu zuen. Beraz, hirurek Mario

Amantegi eta Oihan Matute kideekin batera otsailean izango dute lehia garrantzitsua.

Taldeko prestatzaileak pozarren daude entrenamendu gogorren emaitzak ikusten ari direlako eta helburuak betetzeko lanean jarraituko dutela nabarmendu dute. Hilaren 23an Tolosako Usabalen izango dute ligako laugarren hitzordua eta bertan ere igerilariak euren onena ematea espero dute.

Beste mailak

Bien bitartean, taldeko alebinek eta Nahia Zudairek lehia izango dute.

Txikiak, hilaren 16an, Ligako jardunaldia dute Maialen Chourraut kiroldegian eta 200 m. bizkar, 100 m. tximeleta eta 50 m. bular probei aurre egingo diete adin ezberdinetako gazte-erleboak, baita mutilen 4x100 m. errelebo ere.

Zudairek, berriz, Oviedon, Asturiasen jokatu den Mareastur Nazioarteko Openean lau probatan parte hartuko du: 100 eta 200 m. libre probak, 100 m. bular proba eta 200 m. lau estilo saioa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Tolosa CF B Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Usurbil FT Igandea. 17:00. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN I. MAILA
Intxurre KKE - Texas Lasartearra CF Larunbata. 12:00. Elorri, Alegian. Tolosa CF B - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Usabal kirol., Tolosan.
OHOREZKO JUBENILA
San Marcial CD - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. San Jose Obrero, Irunen.
JUBENILEN I. MAILA
Texas Lasartearra CF - Segura Goierri KE B Larunbata. 15:35. Michelin kirol gunean. Ostadar SKT B - Mariño CD B Larunbata. 19:20. Michelin kirol gunean. Urnieta CD B - Ostadar SKT C Larunbata. 18:00. Urnietan.
OHOREZKO KADETEA
Ostadar SKT - Oiartzun KE Larunbata. 13:50. Michelin kirol gunean.
KADETEEN I. MAILA
Danena KE B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 13:00. Elbarrena, Zizurkilen. Ostadar SKT (neskak) - Intxaurdi CD C Larunbata. 12:05. Michelin kirol gunean.

INFANTIL HANDI, KOPA
Oiartzun KE - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Karla Lekuona, Oiartzunen.
INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA
Bergara KE - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Ipintza, Bergaran.
INFANTILEN I. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA
Texas Lasartearra CF - Landetxa KTCD Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Allerru KE - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Plazeta, Lezon.
ALEBIN, AURRETIKO FASEA
Texas Lasartearra CF - Zarautz KE Igandea 14:35. Michelin kirol gunea. Intxurre KKE - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Elorri, Alegian.
ARETO FUTBOLA
III. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Aldapeta Maria KE B Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki B. Ayesa - Mondrate CD Larunbata. 12:20. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Eguzki G. Goxua - Zarautz Gran Camping Larunbata. 10:55. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA
Eguzki B. La Escalerilla - Lauburu KE Ibarra 2010 Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
I. MAILA
Ostadar SKT - Vivanta Oiarso OSKT Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Zurrut SK - Ostadar SKT Larunbata. 19:30. Alurralde kirol., Andoainen.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Biko Asesoria Oiarso OSKT - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Don Bosco, Errenterian.
KADETE ERRENDIMENDU URREA
Ostadar SKT - SaskiAxular Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Bera Bera Albistur Igandea. 11:10. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
Ordizia KE - Ostadar SKT Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL PARTAIDETZA
Aldapeta Maria ik. Berdeak - Ostadar Urdina Ostirala. 18:00. Aldapeta Maria ik., Donostian. Ostadar Beltza - Ibilii Lacor BKE Igandea. 11:20. Michelin kirol gunean. Ostadar SKT - Easo Basket Urbia

Igandea. 13:00. Michelin kirol gunean.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Ostadar SKT - CV Gallartaren Ahotsa Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Getxoko Aixerrota - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Fadura kirol., Getxo, Bizkaian.
KADETE MAILA
Salvatore Mitxelena - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Lizardi BHI, Zarautzen.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTko igerilariak Alebin Ligako jardunaldiari egingo diote aurre. Larunbata. 17:00. Maialen Chourraut kirol.
MAREASTUR OPENA
Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek Mateastur Nazioarteko Openean parte hartuko du. Larunbata eta igandea. Oviedo, Asturiasen.
PILOTA
ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA
Intza KE (Maiz) - Mundarro Ostirala. 18:00 (1. partida). Loidibarren pil.

ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 13:00. Asti, Zarautzen.
14 URTEZ AZPIKOA
Ordizia RT - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 13:30. Altamira, Ordizian.
10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA
Beltzak Erugbi Eskolako 10 eta 12 urtez azpiko gazteboek Zarautz RTko kideekin batera Bera Bera eta Hernani-Atl. Sn. Sebastian eskolen topaketa izango du. Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.
ATLETISMOA
BOLUNBURU KROSA
Lasarte-Oriako kirol elkarteetako ordezkariak XVII. bolunburu krosean lehiatuko dira. Igandea. 10:00. Txingudi ik., Irunen.
PROBA LIBREAK
Ostadar SKTko zein herriko atletek proba libreetako lehen saioa dute. Igandea. 10:00. Antonio Elortza bel., Donostian.
LASTERKETAK
ZIZURKILGO GAU KROSA
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Zizurkilgo Gau krosek 7 km. proba egingo dute. Larunbata. 22:30. Zizurkilen.

Herriko lasterkariak, abenduan atsedetik ez

Berrea Trail, Irungo Herri Krossa edo Valentziako Maratoia izan dira herriko lasterkari zein herriko taldeetako ordezkariak lehiatu dituzten probak. Ostadar SKTko zein herriko atletak ere txapelketetarako gutxieneko markak lortzeko lehiari hasi dira

Txintxarri

Lurreldeko lasterketa handiak amaituta, abendua herriko kirolari zein herriko taldeetako ordezkarietako atsedetik hilabetea izango zela pentsa zitezkeen, baina ez da horrela izan. Errepide, kros zein mendian herritarrak hainbat probatan lehiatu dira azken bi asteburuetan eta batzuk lehen postuak eskuratu dituzte.

Hilaren 9an, Orihuela del Tremedalen (Teruel, Aragoi) Berrea Trail jokatu zen. 23 kilometroko proban Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko (LOTME) David Garcia herritarrak 02.06.04 behar izan zituen helmugara iristeko; sailkapen nagusiko zortzigarren eta



David Garcia, Berrea Trailen lehiari. LOTME

beterano A mailako hirugarren postua eskuratu zituen.

Astebete lehenago, Irungo Hiriko Krossean herriko hiru ordezkari egon ziren: Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza, Super Amara BAT taldeko Unax Goenaga eta LOTMEko Mari Carmen Olaso. Gipuzkoa-

ko txapelketa zegoen jokoan lasterketan eta guztiak euren onena eman zuten. Sukunza 23 urtez azpiko txapeldun izan zen, 29.09 marka eginez, Olaso (16.09) bigarren M55 mailan eta Goenaga (14.26) laugarren 20 urtez azpiko kategorian.

Herritar talde batek, berriz, Valentziako maratoia lehiatu zuen. 26.251 korrikalari iritsi ziren helmugara eta horien artean izan ziren besteak beste, Raul Gomez Margallo (02.38.26), Gorka Gil (02.42.06), Julen Ormazabal (02.52.58) edo Iñigo Valdivia (02.57.26) herritarrak.

Pistan lehiatzen

Pistara salto eginda, Ostadar Atletismo saileko kideek zein Real

San Silvestreko izen ematea, irekita

Patinatzaile, korrikalari edo ipar martxalari, 2023. urteari amaiera osasuntsua emateko aukera paregabea dago hilaren 31n, Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketa.



Zenbait lasterkari. TXINTXARRI

Igandea izanik, proba eguerdian burutuko da. 12:30ean emango da irteera Okendo plazan eta patinatzaile eta korrikalariak 6 kilometroko ibilbidea egingo dute; ipar martxalariak, aldiz, 4,3 kilometroko. Aurretik, beroketa musikatu izango dute probako parte hartzaileek.

Izen ematea ireki da dagoeneko eta lasterketako www.sansilvestrelasarteoria.com webgunean egin daiteke hilaren 28ra arte, 7 eurotan. Hilaren 29an, 30an eta probako egunean bertan Antonio Mercero gunean izango da inskribatzeko aukera, baina lehen bi egunetan 10 euro ordaindu beharko dituzte izena ematen dutenek eta azkenekoan, 15 euro.

Opari ugari zozketatuko dira izena ematen duten partaideen artean eta mozorro onenek saria izango dute. Informazio gehiago eskuragarri lasterketako webgunean.

Sociedadeko Naroa Elvira eta Atletico Renterriako Jose Ramon Latorre herritarrek proba libreen denboraldiari hasiera eman diote. Antonio Elortza belodromoan gutxieneko markak eskuratzeko bi saio izan dira hilaren 3an eta 10ean

eta lehen jardunaldian Iraia Alkortak 60 m. lasterketan egindako 07,98 marka nabarmendu dute talde urdin-beltzeko prestatzaileek: "Bere marka pertsonaletik eta 18 urtez azpiko Espainiako txapelketako gutxienekotik gertu geratu da".

Lescungo zirkuan barrena

Ostadar Mendi sailak antolatuta, Juan Mari Ansa herritarrak *Lescun: Unas montañas de ensueño* bideo-proiektzioa eta hitzaldia eskainiko du. Hilaren 18an, astelehenarekin, 19:00etan, Antonio Mercero aretoan hamabi urteko lanaren fruitua aurkeztuko du Ansa.

Lescungo zirkua, inguruko tontorretara (Añamendi, Hiru



OSTADAR MENDI SAILA

Errege Mahaia, Petretxema edo Atxerito) igoerak, eremuko kondariak eta istorioak ezagutzeko aukera ederra izango dute emanaldira bertaraten diren herritarrek.

Ipar martxako hastapen ikastaroa, urtarrilean

Ostadar Ipar Martxa taldeak kirol horretan lehen pausoak eman nahi dutenei zuzendutako saioa bat antolatuko du urtarrilean. Hastapen ikastaroa hil horretako 13an, larunbatarekin eskainiko da 10:00etatik 13:00etara.

Makilarik ez duten herritarrek ere parte hartu ahalko dute; taldeak makilak utziko dizkie.

Ikastaroak 20 euroko prezioa du eta izen ematea hiru bidetatik egin daiteke: ostadar@ostadarskt.eus, 943 360 433 zenbakian edo Geltoki kaleko bulegoan, 17:00etatik 19:00etara.

Ostadar Ipar Martxako taldeak herritarrak animatu nahi ditu euren kirola probatzera. Gainera, lekurik gabe ez geratzeko, lehenbailehen inskribatzeko gomendioa egiten dute eta Olenzero eta Mari Domingiri eskatzeko opari aproposa dela ere nabarmendu dute.

Realeko gazte taldeak ezin izan du European aurrera egin

Lehen taldeak ez bezala Jon Martin herritarrak eta Real Sociedad gazte taldeak ez du UEFA Youth Leaguean aurrera egingo; D multzoko azken sailkatu dira. Txapelketako azken neurketan Inter Milan izan zuten aurrez aurre. Martinek hamaikakoan jokatu zuen eta txuri-urdinak saiatu arren, 1-0 gailendu ziren italiarrak; Sarrek sartu zuen penaltia.



IBON FERNANDEZ IRADI

CP DE SAN SEBASTIAN / DONOSTIAKO ESPETXEA

Martutene Pasealekua, 1
20014 - Donostia (Gipuzkoa)

Intzako pilotariak, Ekialdeko txapelketan

Azaro amaieratik Intza Kirol Elkarteko pilotariak Ekialdeko txapelketako kanporaketak ari dira jokatzeko. Infantil eta alebin mailako gaztetxoek lehen neurketak jokatu dituzte eta pilotari bakarra geratzen da finalerako bidean, 2. mailako Ekhi Maiz infantila

Txintxarri

Intzako pilotariak Gipuzkoako txapelketako lehen fasea amaitu zuten azaroan. Alebin eta infantil mailako kideak Ekialdeko txapelketa jokatzeko sailkatu ziren eta hilabete honetako lehen bi asteburuetan kanporaketak jokatu dituzte.

Hilaren 9an Intzako bi kirolari izan ziren kantxan. Unai Lizarragak infantil 3. mailako final laurdena izan zuen. Unax Urdangarinek batera jokatu du txapelketa eta horrek lehen kanporaketa 1-2 gaitzitu ostean, Lizarragak Alde Zaharrako Salaberriaren aurka jokatu behar izan zuen; donostiarra 2-0 nagusi izan zen.

Michelin kirol gunean 2. mailako Ekhi Maizek final zortzirenetako neurketari egin zion aurre. Mundarroko Aldazabal izan zuen aurkari eta 5-8 gaitzen hasi arren, itzulia eman zion herriko pilotariak bi joko (8-7 eta 4-2) irabaziz.



Benjaminen neurketa. TXINTXARRI

Maila horretan ere Itxaso Iparragirre eta Markel Lopez-Arkaitz Lasa jardun dira. Horiek final hamaseirenetan utzi zuten lehaketa. Iparragirrek Mundarroko Anzaren aurka galdu zuen 2-1 eta Hernaniko Hernandezek Lopez 2-0 gaitzitu zuen.

Oier Jauregi, aldiz, 1. mailako infantil mailako final zortzirenetan jokatu zituen hilaren hasieran. Behar Zana elkarteko Iraolaren aurka neurtu zituen indarrak eta aurkaria 2-0 gaitzitu zuen.

Alebin mailan ere izan da ordezkariarik. Lier Garmendiak

LAPKEko Galarraga izan zuen aurkari kanporaketan. Lazkao-tarra nagusi izan zen; 2-0 irabazi zuen.

Bakarra lehia

Gauzak horrela, Intzako pilotari bakarra, Ekhi Maiz, geratzen da txapelketako finalen bidean. Gaur, hilaren 15ean, 18:00etan final laurdena jokatu du gaztetxoak; Mundarroko Anza gaitzitu beharko du Maizek final erdian izateko.

Gainerako taldekideak, senior mailako zein gomazko pilotako kirolariak barne, urtarriletik aurrera Udaberri txapelketan euren onena emateko lanean ari dira.

Txikiek, topaketak

Bestalde pilota eskolako benjamin mailako txikiek jardunaldi ezberdinak izan dituzte azaro eta abenduan. Azkena Michelin kirol guneko pilotalekuan izan zen hilaren 2an.

Europako Superkopako hirugarren postuaren bila

Castilla y Leon Iberians taldeak Romanians Wolves izango du aurrez aurre, hilaren 16an

Txintxarri

Beltzak RT harrobiko Alex Saleta herritarrak eta Castilla y Leon Iberians taldeak erronka polita dute hilaren 16an. Europako Superkopako hirugarren postua izango du jokoan selekzioak Romanian Wolves taldearen aurka, Amsterdamen (Herbehereak).

Hilaren 2ko finalerdian, txapelketa bitan irabazi duen Black Lions taldea izan zuen aurrez aurre Espainiako selekzioak eta georgiarrek euren nagusitasuna erakutsi zuten etxean; 41-0 gaitzitu ziren. Saleta hamabostekoan jokatu zen. Saiatu arren,



Saleta (goiko ilara, ezkerreko lehena), jokatzeko prest. CASTILLA Y LEON IBERIANS

lasarteoriatarra eta bere taldekide ezin izan zuten entsegurik egin. Aurkariak erasoan zein defentsan sendo eta irmo jokatu zuten eta finalerako sailkapena eskuratu zuten.

Asier Sagasti, beterano mailako Espainiako txapeldun

Beterano mailako Espainiako txapelketa jokatu zen hilaren 3an, Iruñean (Nafarroa). LOKEko Asier Sagasti judoka M1 kategoriako 100 kilo azpiko mailan lehiatu zen eta podiumeko go-renera igo zen. Nafarroa, Errioxa eta Gaztela-Mantxako ordezkariaren aurka borrokatu zen herritarra. Lehia guztietan



Sagasti (erdian), Espainiako txapelketako podiumean. LOKE JUDO

nagusi izan zen LOKEko judoka eta ipona eginez irabazi zituen. Horri esker, urrezko domina jantzi zuen Sagastik.

Kadete Errendimendu taldeak lehen faseari agur esango dio

SaskiAxular izango dute aurrean. Emaizta dena delakoa, kadeteek Euskal Ligako igoera jokatu dute urtarrilean.

Txintxarri

Abenduko zubian Ostadar Saskibaloia ataleko talde gehienek jardunaldirik izan ez duten arren, Saski Eskolako 2014 eta 2015 urteetako kideek topaketa izan zuten Maialen Chourraut kiroldegian, hilaren 10ean.

Aloña Mendi (Oñati), Bergara, Ikasbasket (Hondarribi), Easo (Donostia) eta Ostadar SKTko taldeetako neska-mutil zein talde mistoak bildu ziren kantxan eta ederki lehiatu ziren. Etxekoek Easo 2014 eta 2015 taldeen aurka neurtu zituzten indarrak.



Topaketako irudi bat. OSTADAR SASKIBALOIA

Hilabeteko hirugarren asteburuan, berriz, urteko azken neurketak jokatu dituzte talde urdin-beltzeko kideek eta Kade-

te Errendimendu Urrea mailako kideen kasuan, lehen faseari ere amaiera emango diote.

Fase amaiera

Kadeteak sailkapeneko bosgarren postuan dira eta laugarren den SaskiAxular izango dute aurrez aurre, Maialen Chourraut kiroldegian. Joaneko neurketan 47-41 gaitzitu ziren donostiarrak; arantzaxoa kendu eta puntuak eskuratu nahi ditu herriko taldeak.

Nahiz eta garaipena ez erdietsi, urtarrilaren 13an Euskal Ligara igotzeko kanporaketa txapelketa jokatu du Jonatan Reinok zuzentzen duen taldeak; Ostadar dagoeneko sailkatu da. Liga erregularreko lehen sailkatua den ZAST Kuraye ZKE eta lehiaketa horretako garailea Euskal Ligarako jauzia egingo dute.

3x3 saskibaloia txapelketa, bueltan

Ostadar SKTko Saskibaloia sailak 3x3 txapelketa berreskuratu du. Aldaketa bat dago, ordea; gaztetxo zein haurrei zuzendutako lehiaketa izango da bakarrik. Hau da, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako lehiak izango dira. Abenduaren 30ean, goizean, batuko dira guztiak Maialen Chourraut kiroldegian saskibaloiaz gozatzeraz.

Izen ematea ireki da eta talde bakoitzak 15 euro ordaindu behar ditu. Ostadar Saskibaloia ataleko sare sozialetan argitaratu den formularioaren bitartez inskribatu behar dira taldeak; azken eguna hilaren 26a izango da. Gehienez lau jokalariko taldeak onartuko ditu antolakuntzak. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 677 163 751 telefono zenbakira.



3x3ko lehiak itzuliko dira. TXINTXARRI


KOMIKIA



ZORION AGURRAK




Pau
Zorionak!!
Olentzeroren gutuna prestatu al dek? Musu potolo bat etxekoan partetik.



Maite
Zorionak Maite!! Muxu handi bat Manolo eta zure semearen partetik! Eta TXINTXARRI-ko lantaldearen partetik besarkada bat, ze ondo zaintzen gaituzun!



Aran
Zorionak, goxoki!! Iritsi da zure urtebetetze eguna!! Ze ondo, gozatu!! Eta hasi Olentzeroren gutuna prestatzen... Muxu handi bat!!



Olatz
Zorionak adinez nagusi zara eta! Amona Araceliren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaile ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 15	GIL
LARUNBATA, 16	DE MIGUEL
IGANDEA, 17	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 18	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 19	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 20	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 21	DE ORUE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'


Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 15




Larunbata, 16




Igandea, 17



Astlehena, 18



Asteartea, 19



Asteazkena, 20



Osteguna, 21



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zembakira.

SUDOKUA

	2	4						
	5	9						
					3			8
	8				5			4
	1		3					7
6					8			5
	9			8				1
	4		1	2				6
			4					

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

ESKUTITZAK

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldeu deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINTZA

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Eriexetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Eriexetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Musika

Golden Apple Quartet laukoteak Lasarte-Orian egingo du amaiera birako emanaldietako bat, *Vamos que nos vamos* izenekoa. Sarrerek 6 euro balio dute. *Manuel Lekuona, 20:00etan.*

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Literatura

Bookstart Euskadi egitasmoaren barruko lehen irakurketa saioa aurrera eramango dute, Liburu Baby Kluba izeneko taldearen barrukoa. 0 eta 3 urte arteko haur eta haien familientzat zuzendutako ekimena da, doakoa.

Udal liburutegia, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Andereño antzezlanaren emanaldia egingo du Anita Maravillas konpainiak. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Hilabeteko bigarren filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak: *Una vida no tan simple*. Sarrerek 6 euro.

Kultur etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Gabon kanta ugariarekin osatutako errepertorioa eskainiko du Zero Sette akordeoi taldeak. Sarrera doakoa da.

San Pedro parrokia, 20:00etan.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Zinema

Trolls 3 todos juntos filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La ermita filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.



LASARTE-ORIA Jaia

Aurten, goizez bisitatuko dituzte lasarteoriatarak Olentzerok eta Mari Domingik. Haurren gutunak jasotzen hasi aurretik, herriko ikastetxeetako ikasleak kantu eskean ibiliko dira erdigunean barrena 11:00etatik aurrera. Loidibarrenen amaituko dute ibilbidea, eta 12:00etan bertatik abiatuko den Mari Domingi, Olentzero eta lagunenekin kalejirarekin bat egingo dute. Kale Nagusitik barrena Tajamar biribilguneraino joan eta handik Okendo plazara iritsiko dira, 12:30etik aurrera ikuskizun koloretsua eskainiko dute Porrotx pailazoarekin batera.

Hilaren 24an, Loidibarren pilotalekutik, 12:00etan.

ASTELEHENA 18

LASARTE-ORIA Musika

Udal Musika Eskolako ikasleek Gabonetako emanaldia aurrera eramango dute.

Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 19

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Taloak egiten ikasteko bi saio aurrera eramango ditu Ttakun Kultur Elkarteak hilaren 19an, asteartez. 17:00etatik 18:30era izango da lehenengoa, eta, bigarrena, 18:30etik 20:00etara. Biak ala biak Ttakunenea elkartearen (Iñigo de Loiola kalea, 6) burutuko dituzte. Izena eman nahi dutenek 943-37 14 48 nahiz 695 78 53 89 telefonoetara deitu edo *kultura@ttakun.eus* helbide elektronikora idatzi behar dute. Jarduera doakoa da.

Ttakunenea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Literatura

Irakurle txokoaren hirugarren saioa. *Bihurguneko nasa* lanari buruz solastuko dira irakurle txokoko

kideak, egile Uxue Apaolaza bertan dela.

Kultur etxea, 18:30ean.

OSTEGUNA 21

LASARTE-ORIA Jaia

San Tomas azoka aurrera eramango du Ttakun Kultur Elkarteak. Askotariko jarduerak antolatu ditu, horien artean, taloa, gaztainak eta sagardoa dastatzeko postuak, musika Xumela korua eta Oaintxe in deu! txarangaren eskutik, dantza saioa eta abar.

Okendo plazana, 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Herriko haurrek Eguberrietako Haur Parkeaz gozatu dute. Urtarrilaren 5ra arte izango dute horretarako aukera, nahiz eta hilaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo den eta hilaren 24an nahiz 31n eta urtarrilaren 5ean goizez bakarrik irekiko duten. Helduek euro bat ordaindu beharko dute sartzeko.

Michelin kirol guneko pilotalekua, 11:00etatik 14:00etara edota 17:00etatik 20:00etara.

ZINEMA



LABURPENA

'UNA VIDA NO TAN SIMPLE'

Zuzendaria: Felix Viscarret. **Gidoia:** Felix Viscarret. **Argazkia:** Oscar Duran. **Ekoizleak:** Lamia producciones, A Contracorriente films, Movistar Plus+, ETB. **Herrialdea:** Espainia (2023). Iraupena: 107min. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Miki Esparbe, Alex Garcia, Ana Polvorosa, etab.

Guraso eta heldu izatearen ardura

Isaías, 40 urteko etorkizun handiko arkitektoa zen. Orain, arkitektura estudioan eta seme-alaben ikastetxe inguruan dagoen jolas parkean igarotzen du eguna. Nonahi dagoela ere, Isaíasek sentitzen du ez dagoela behar duen tokian. Bere emazte Ainhoarekin duen harremanean

antzematen da urteen igarotzea, eta haurrak nekagarriak izan daitezkeela ere bai. Egoera horretan, Isaías Soniaekin harremanduko da, eskolako beste haur baten amarekin; hark erakutsiko dio seme-alabak hazi eta helduaroan sartzea ez dela erraza.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Musika

Gabonetako emanaldia aurrera eramango du Alboka Abesbatzak. Sarrera doakoa da.

Brigitarren komentua, 19:30ean.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Musika

Jon Maia bertsolariak *Kantu bat gara* zuzeneko emanaldi bat eskainiko du goi mailako zenbait musikarirekin batera. Sarrerek 14 euro balio dute.

Brigitarren komentua, 19:30ean.

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA Musika

New Orleans Gospel Quartet laukoteak gospel kontzertua emango du. Sarrerek 14 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Zinema

El chico y la garza filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxean nahiz Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros daitezke.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 31 ASTELEHENA 1

LASARTE-ORIA Musika

Urtea bukatu eta datorrena giro ederrean hasteko aukera izango dute herritarrek, Oihan Vega DJaren eskutik. Haurrentzako saioa 19:00etatik 20:30era artekoa izango da, hilaren 31n, eta, gazteena, 01:00etatik 04:00etara bitartekoa, urtarrilaren 1ean. Sarrera doakoa dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Gaztelekuan, 20:00etan.

Zatoz Lasarte-Oriara doan aterako zaizu!

gutxieneko erosketa

10€

BILA EZAZU BEREIZGARRI HAU



**DOAN
PARKING
GRATIS**
MURIAS LOIDIBARREN



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO GAIAK
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



MURIAS



aterpea

Talo, gaztaina,
herriko taldeen postuak,
musika eta
Txerria ikusgai

SAN TOMAS AZOKA

Abenduaren 21ean, OKENDO plazan
17:00etatik 20:00etara



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO